



Matzagabekoa (-a) etxebizitza

Aldacrak: Matzagazpikoa
Ahozkoa: Mátza Bekúe



43° 10' 3"

2° 34' 47"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

“... la casa nueva accesoria nombrada Mazaga-azpicoa... consta de dos viviendas, compuesta de dos cocinas con sus cuadras y portaleza en el piso bajo, y e el alto o superior... tres cuartos, camarote y pajares... contiene con inclusión de sus zaguanes y horno ciento ochenta y dos estados, o sean siete areas y noventa y dos centiareas...”
DJE 5/125 or. (1884)

Baserri honen gaineko lehen aipu dokumentala Bizkaiko su-erroldean aurkitzen dugu: *Mazaga de Yuso* (1796). 1825eko polizia-errolan *Masagavecoa* agertzen da, eta lehen aipatu dugun moduan, 1859ko udal-izendegian *Mázagas* agertzen da, inguruan aurkitzen ditugun hiru baserriei erreferentzia eginez: *Matzagagoikoa* (**Ikus Matzagagoikoa**), *Matzaga* (**Ikus Matzaga**) eta *Matzabekoa*. Hiru baserri horietatik honako hau beheko aldean kokatzen da, eta hortik datozkio *Mazaga-azpicoa* (1863, DJE, 1/35. or.) eta *Mazagabekoa* (1967, BUA, CE) erreferentziak. Auzotarren artean, ahozko transmisioan *Mátza Bekúe* nagusitu da.

XIX. mende hasierako baserria, handia, bizitza bikoia, fatxadan ere nabarmena den ezaugarri.

Simetrikoki pentsatutako fatxada dauka, nahiz eta beheko solairuko eskumaldean leiho bat itxi zuten, ondoan handiagoa zabaltzeko. Salbuespen horrekin, dena antolatuta dago ardatzaren arabera. Erdian, atarte zabala du, arku karpnel baten babesean. Eta honen bi aldeetan, aipatutako leihoak. Gaineko bi solairuetan, alde bakoitzak hiru ditu, lehenengoan, eta bi, bigarrean. Ganbarakoa itsua da eta zurezko imitazioeko egitura egin dute frontoian. Hormetako harlangaitza, jatorrian, luzituta eta pintatua egongo zen; eta bistan, kantaletako, arkuaren eta leiho guztien ertzetako harlanduak egongo ziren, frontoian ikus daitekeen legez.

toponimia

Matzaga etxe multzoko beheko aldean dagoen etxe honek izen bi eduki ditu denboran zehar egun erabiltzen dena, 1825etik dokumentatua eta XIX. mendean noizean behin ageri den **Matzaga(a)zpikoa**.